

«Inork ez dezala izan hilez jabetzeko asmoa, bere mesedetan eta demokraziaren aurka erabiltzeko. Hilak ondratzea (...) eta arerio politikoari eraso egiteko hilak baliatzea, errespetu falta dena, justu kontrakoak dira (...) Desadostasun politikoa, are liskar ideologikoa ere, ezin da izan zatiketa eragiteko arrazoi hilketaren aurrean: denek oroitu eta ohoratu behar dituzte terrorismoaren biktimak»¹.

Elías Díaz

¹ Elías Díaz. "Algunas condiciones para hacer más ineficaz el terrorismo", *La transición a la democracia*. Eudema argitaletxea. Madril, 1987.

Aurkibidea

I. Sarrera	5
<hr/>	
II. Interpretazio-esparru orokorra.	6
1. Erreferentzia-esparrua.	
2. Helburua.	
3. Zehaztapen kontzeptualak.	
4. Iturriak eta metodoa.	
<hr/>	
III. Datuak.	9
1. ETA	
1.1. Barne Ministerioa	
1.2. Biktimen elkarteak	
1.3. Kasu eztabaidagarriak	
2. BVE eta talde sateliteak	
2.1. Barne Ministerioa	
2.2. Biktimen elkarteak	
3. GAL	
3.1. Barne Ministerioa	
3.2. Biktimen elkarteak	
<hr/>	
IV. Emaitzak.	20
1. ETA	
2. BVE eta talde sateliteak	
3. GAL	
4. Egile ezezagunak eta bestelakoak	
<hr/>	
V. Bibliografia.	25
<hr/>	
VI. Eranskinak.	Beste dokumentu batean
<hr/>	

I. Sarrera

2014ko martxoaren 4an, 1960 eta 2014 artean hildakoak eragindako eta egile ezezaguneko atentatu terroristen gaineko txostena osatzea agindu zion Eusko Jaurlaritzak Auzitegi Goreneko fiskal eta magistratu emeritu José Antonio Martín Pallín, Madrileko Carlos III. Unibertsitateko Zuzenbidearen Filosofiako irakasle titular eta 2005 eta 2011 urteen artean Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko zuzendari nagusi ohi José Manuel Rodríguez Uribes, Euskal Herriko Unibertsitateko Zigor Zuzenbideko irakasle agregatu Enara Garro eta koordinazio zein idazketaz arduratutako Carlos Fonseca kazetaria kide zituen taldeari.

Eusko Jaurlaritzak honako agiri hau osatzeko emandako agindua Bake eta Bizikidetzaren Planaren barne dagoen iragana argitzeko konpromisoaren ondorio da. Horretarako, euskal kasuko giza eskubideen urraketen oinarriko txostena (1960-2013) idatzi zen. Bertan, euskal kasuko argitu gabeko atentatu terroristen egoera argitzera zuzendutako berariazko mekanismoak abian jartzea gomendatzen zen, nagusiki, «*bizitza-eskubidea urratu eta modu bidegabean zein behin betiko kendu denean, edozein dela ere egilea, arau-hierarkian giza eskubide gorena denaren urraketa dakarrelako*», eta, ondorioz, horiek ikusgarri egitea eta arreata jasotzea lehentasunezkoa delako.

Hain zuzen, Eusko Jaurlaritzaren enkarguan bi azterketa-esparru zehaztu ziren:

- a) Hildakoak eragindako eta argitu gabeko erakunde terroristen atentatu-kopurua.
- b) Kasu horien auzibide-egoeraren araberako sailkapena.

Oinarria hori izanik, eta aipatutako gaiei aurre egiteko xedez, agiriak honako egitura hau izango du:

- a) Lehenik, sarrera eta gero, txostenaren erreferentzia-esparrua aurkeztu dugu, hala nola helburua, eta iturri zein metodoen gaineko zenbait zehaztapen egin ditugu, agiriak bildutako datuak interpretatzeko gida gisa erabili ahaliko diren zehaztapen kontzeptualez gain.
- b) Bigarrenik, eta lehen atalean zehaztutako aztergaiaren oinarrituta, erakunde terroristak antolatuta dira datuak, datuon iturriaren araberako azpitaldetan banatuta.
- c) Hirugarrenik, emaitzak aurkeztu ditugu; alegia, hildakoak eragindako eta argitu gabeko atentatuei buruzko datu kuantitatiboak eta kualitatiboak, kasuon auzibide-egoera eta erakunde terroristak bakoitzari egotzitako atentatuak kopuru osotik ehuneko zenbat diren. Emaitzak ahalik eta modu grafikoenean aurkeztu nahi izan ditugu, ikusterrazak izan daitezzen.
- d) Azkenik, txostena egiteko erabilitako dokumentu-iturriak zehatz aipatzen diren atala dago.

II. Interpretazio esparru orokorra

1. Erreferentzia-esparrua.

Txosten hau egiteko erreferentzia-esparrua Nazio Batuen Biltzar Nagusiak 2005eko abenduaren 16an onartutako dokumentu hau da: «Giza eskubideen urraketen nazioarteko arauen ageriko urraketan eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketa larrien biktimek errekurtsoak aurkezteko eta ordaina lortzeko duten eskubidearen gaineko oinarrizko printzipioak eta zuzentarauak». Ebazpenak honako betebeharrak ezartzen die Estatu kideei: «[giza eskubideen] urraketak eragozteko neurri egokiak eta lege- zein -administrazio xedapenak onartzea; urraketok bizkor, eraginkortasunez, sakon eta inpartzialtasunez ikertzea eta, hala dago-kionean, Estatu eta nazioarteko zuzenbidea jarraiki, ustezko erantzuleen aurkako neurriak hartzea; giza eskubideen edo giza zuzenbidearen urraketaren baten biktima direla diotenei justiziarako sarbide ekitatibo eta egiazkoa eskaintzea, urraketaren erantzulea edozein dela ere, eta biktimoi bitarteko eraginkorrak eta erreparazioa ematea (...)».

Printzipio hori bat dator 1948 Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalarekin, 1966ko Giza Eskubideen eta Eskubide Politikoen Nazioarteko Hitzarmenarekin eta giza eskubideen gaineko nazioarteko zuzenbidearekin. Horiek guztiak osatzen dute, Espainiako Konstituzioaren 10.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, gai honi dagokion interpretazio-esparru orokorra.

2. Helburua.

Txosten honen helburua hildakoak eragindako eta argitu gabeko atentatuak dira. Heriotza zuzenean atentatu terroristari egotz dakioken kasuak baino ez dira kontuan hartuko.

Txostenak ez ditu aztertuko, beraz, indarkeriari loturiko gertaeretan edo baldintzetan hil direnen kasuak, suizidioak, armak maneiatzean hiltzea, polizien arteko tiroketa nahigabekoak, atentatuen biktimei laguntzean izandako istripuak eta bestelakoak, kasu.

Txostenak hildakoak eragindako atentatuak bakarrik barne hartzeak ez du esan nahi bestelako eskubide-urrietak jasan dituztenak ez direla biktima, ezta zalantzan jartzen direnik ere azter-eremutik kanpo geratutako gainerako egoerek eragindako oinazea eta kalte-ordainak jasotzeko eskubidea. Alabaina, azterlana zehatza izango bada, irizpide-batasuna beharrezkoa da kasu bat aztertu beharrekoa denetz ziurtasun osoz zehaztu ahal izateko. Hala, talde honek eskura izandako datuak aintzat hartuta, erabilitako irizpide hori da txostenak bildutako kasu guztiak baldintza berdinetan gertatu zirela bermatzen duen bakarra.

3. Zehaztapen kontzeptualak.

«Argituta» kontzeptua hutsala eta anbigua gerta daiteke. Ez da kontzeptu tekniko-juridikoa. Txostenaren asmoa datu objektiboen deskribapena ematea denez, agiriaren erdiko atalean 1960 eta 2014 urteen arteko atentatuetan hildakoak zenbatzen dira, hilketa egotzitako erakundearen arabera. Horien auzibide-egoera zenbakizko datuen bidez adierazi da. Lege-esparrura mugatuz, honako egoera hauek bereizi ditugu:

- a) Epaia emanda.** Atal honetan sartu ditugu dagoeneko epaia emandako prozedurak. Askotariko kasuak dira; batzuetan atentatuaren egile materialetako batzuk atxilotu, epaitu eta zigortu dira; beste batzuetan, kolaboratzaileak bai, baina egile materialak ez; eta ez dira falta aldi berean auzipetuetako bat edo batzuk zigortu eta beste bat edo batzuk largetsi edo auzi-iheslari deklaratu direnak. Horiek ulertzeko, hona hemen adibide batzuk:

48/83 auzia, Juan Maldonado Moreno polizia nazionalaren hilketarena, 1983ko ekainaren 22an Pasaian gertatu zena, 1985eko apirilaren 23ko epaian egile materialtzat jotako Ignacio Celaya Aldana zigortuta ebatzi zen. Geroagoko ebazpen batek, 1988ko urriaren 6koak, Ángel Luis Hermosa Urrea ere egile material gisa zigortu zuen. Azkenik, Sebastián Echaniz Corta 2005eko maiatzean absolbitu zuten eta 2010ean heriotzagatiko largetsen librea eman zioten Enrique Iztueta Barandicari.

Andrés Guerra Pereda eta Alberto Negro Viguera Lemoizeko zentral nuklearrak kontratatutako Ibem muntaketa-enpresako langileak ETAk jarritako lehergailu batek eztanda egitean hil ziren. 1/79 auzian, José Antonio Torre Altonaga zigortu zuten (1981eko apirilaren 11ko epaia) eta Miguel Goyenechea Fradura (1990eko maia-

tzaren 9ko epaia), Juan Lorenzo Lasa Mitxelena (1993ko maiatzaren 14ko epaia), Martín Apaolaza Azcargorta eta José Luis Palmou Fidalgo (1999ko maiatzaren 11ko epaia) absolbitu zituzten. 2000ko apirilaren 5ean, Emilio Martínez de Marigortari preskripziogatikko largespen librea ematea adostu zen.

101/80 prozedura, Antonio Gómez Ramos eta Aurelio Navío Navío guardiazipilen hilketarena, 1980ko uztailearen 13an Orion gertatu zena, Juan María Tapia Irujo, Jerónimo Azcue Arrizabalaga eta Manuel Echave Urrestrilla estaltzaile gisa zigortzen zituen 1989ko martxoaren 7ko epaiarekin burutu zen. Alabaina, Auzitegi Gorenak Azcue eta Echave errugabetu zituen geroago. Lehenago, 1983ko martxoaren 22an, Auzitegi Nazionalak Francisco Javier Cendoya Aizurua absolbitu zuen. Halaber, 1987ko azaroan, Miguel Ángel Goicoetxea Elorriagari largespen librea eman zioten heriotzagatik. 2000 urtean, auzitegiak behin betiko largespena eman zion José Luis Zabaleta Elósegui eta auzi-iheslari deklaratu zuen Pedro María Leguina Aurre. Carlos Lucio Fernández eta Ignacio María Gabilondo etakideak atentatuaren egunean bertan hil ziren.

- b) Amnistia emanda.** Taula estatistikoetan daude jasota 1977ko amnistiak eragindako prozedurak (urriaren 15eko 46/1977 Legea), «1976ko abenduaren 15a baino lehenago egindako asmo politikoko ekintzak, delitu eta falta gisa tipifikatutakoak, edozein zela ere ondorioa» (a) paragrafoa, lehen artikulua) zigor-erantzukizunetatik salbuetsi zituen. Halaber, «mota bereko ekintzak, 1976ko abenduaren 15etik 1977ko ekainaren 15era artean egindakoak, asmo politikoaz gain, askatasun publikoak berrezartzeko edo Espainiako herrialdeen autonomia aldarrikatzeko asmoa zutenak» salbuetsi zituen (b) paragrafoa, lehen artikulua). «Amnistiak, oro har, ezarritako zigorren edo ezarri daitezkeen zigor nagusi zein osagarrien ondoriozko erantzukizun kriminalak iraungitzea ekarriko du». Amnistia emandako kasuei dagokienez, ez dugu nahikoa datu argituta daudenak eta argitu gabekoak bereizi ahal izateko.

ETA pm-ko kideen gutxiengo batek indarkeria behin betiko lagatzea eta erakundea disolbatzea erabaki zuen 1982an, orduko Barne ministro Juan José Rosónnek (UCD) eta Euskadiko Ezkerrako buruzagi Juan María Bandresen eta Mario Onaindiak urtebetez negoziatu eta gero. Ondorioz, erakunde terroristak presoak espetxetik atera ziren, graziazko neurriak aplikatu zitzaizkenez. Prozesuak aurrera jarraitu zuen PSOEk irabazitako hauteskundearen ondorengo Felipe Gonzálezen lehen gobernuaren Barne ministro izandako José Barrionuevoren eta garai hartan EAJren senatari zen Joseba Azkarragaren arteko kontaktuen bidez.

- c) Preskripzioa.** Delitua egin zenean indarrean zegoen Zigor Kodeak ezarritako denbora igaro eta ikerketa-izapiderik egin ez bada, delitua preskribatutzat jotzen da. Zigor Kodearen 2010eko erreformarekin indarrean sartu ondoren egindako terrorismo-delituak ez dira preskribatzen pertsona baten edo gehiagoren heriotza eragin badute (ikus Zigor Kodearen 131. artikulua).

Preskribatuta egon daitezkeen kasuen berririk ez dugu, horixe adierazten duen epairik ez dugunez. Epairik ematen bada, justizia materialaren ikuspegitik, argitu gabeko kasutzat hartu beharko dira.

- d) Behin betiko largespena.** Delitugilea ezezaguna bada edo leku ezezagunean badago (PZL-Prozedura Zibilaren Legearen 641. artikulua).
- e) Berririkiera.** Artxibatzea erabaki zenean ezezagunak ziren egitateak edo datuak agertzean erabakitzen da.
- f) Xahuketa.** Epailearen erabakia dela medio, antzinakotasunagatik ikerketa eraginkorrik ezin egin daitezkeen espedienteen suntsipena dakar.
- g) Frantziako auzitegiek epaia adieraztearen zain.**

4. Iturriak eta metodoa.

Txostena egiteko, izaera, jatorri eta zehaztasun heterogeneoko iturriak erabili dira, horien guztien bidez lortutako emaitzak alderatuz. Kontsultatutako dokumentu-iturri guztiak amaierako bibliografian aipatzen diren arren, txostenaren sinatzaileei ez zaie iruditzen horiek guztiak emandako datuek fidagarritasun- eta balioz-kotasun-estandarrik maila berean betetzen dituztenik ikuspegi metodologikotik, eta, ondorioz, ez dituzte guztiak maila berean aintzatetsi honako dokumentu hau egiteko.

Erabilitako iturriek dagokienez, bi zehaztapen garrantzitsu egin behar dira, zentzu desberdinekoak:

- a)** Barne Ministerioak ez du lagundu txosten honen osakeran. Taldeak behin baino gehiagotan eskatu arren, lan-metodologia aurrez azaldu eta ager litezkeen zalantzak argitzeko prest egon arren,

Estatuaren Segurtasun Idazkaritzak eta Idazkaritzaordeak ez dute erantzunik eman. Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza Nagusiak eskatutako datuetarako sarbidea eskaini zuen, Datuak Babesteko Legea urratzen zuen edo ez ebazteko aurretzeko azterlan juridiko bat egitearen baldintzarekin ². Ikerlana burutu arren, ez dugu haien erantzunik jaso.

Biktimen intimitasun-eskubidea babesteko lege-prebentzioak argudiatu eta oinarritzko informaziorako (biktima guztien identitatea, kasu) sarbidea ukatu arren, paradoxikoa da Barne Ministerioaren webgunean bertan ETaren azken biktima guztien izen-abizenak ematea. Halaber, izaera publikoko Terrorismoaren Biktimen Fundazioaren (FVT), Terrorismoaren Biktimen Elkartearen (AVT) eta Euskadiko Terrorismoaren Biktimen Kolektiboaren (COVITE) webguneetan –erakunde horiek hautatu dira kide kopuru handienekoak direlako– biktima guztien izen-abizenak eta kronologia eskaintzen dira. Bestalde, Justizia Ministerioaren Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Bulego Elektronikoak, oraindik ere erabat erabilgarri ez dagoenak, sarbide publikoa eskaintzeko asmoa du, «edonork lor ahal izan dezan hildako biktimen eta atentatuen kokaguneen gaineko informazioa», webgunean dioenez.

Agerikoa den arren, gogora ekarri behar dugu Estatuaren eta euskal administrazioaren arteko lankidetzak, biktimen egia-, justizia-, memoria- eta erreparazio-eskubidearen defentsa egiteari dagokionez. Lankidetzak horren oinarria, desadostasunak zilegi direla jakinik, elkar errekonozimendua, konfiantza eta errespetua izan behar dira, hala nola informazio-trukea, interes politikoak eta alderdikoak alde batera utzita.

- b)** Elkarte eta fundazio guztiak eta ministerio batzuk ordezkaturik dauden Terrorismoaren Biktimen Fundazioarekin (FVT) ere ezin izan gara elkarlanean aritu, ezta ministerio horiekin ere, hainbatetan eskatu arren.
- c)** Ezin izan dira kontsultatu Auzitegi Nazionalak izapidetutako auziak, eta, horrenbestez, ez dakigu zein auzibide-egoeratan dauden kasuok. Fiskalburuak horiek aurkitzeko zailtasunak argudiatu zituen, terrorismoaren biktimen izenen zerrendarik ez dagoelako; sumarioak instrukzioko epaitegietan sakabanatuta eta auzibide-agiriaren zenbakiaren arabera artxibatuta daude. Fiskaltzaren beraren egiazta-pena eskatu genuen orduan, baina erantzunik ez dugu jaso.

Baldintza horietako batek ere ez du higatu terrorismoaren biktimen egoera pertsonalaren eta auzibide-egoeraren hurbilketa ahalik eta zintzo, egitati eta zehatzena egiteko borondatea; izan ere, erakundeei beren eskubideen aitortpen osoa eskatzea ahalbidetzea da gure xedea, biktimok jasandako kalte konponezina onartuta. Halaber, argi utzi nahi dugu errespetatzen dugula txosten honen emaitzekin ados ez daudenen iritzia. Kritika eraikitzaileak gustura hartuko ditugu, konbentziturik baikaude ez dagokigula egin osoaren jabetza, horretarako asmorik ere ez dugunez.

Ziur aski, agiri honek akatsak izango ditu, zati batean behintzat, erabilitako informazioa dokumentazio ofizialarekin alderatzeko ezintasunari zor zaizkionak. Barkamena eskatu besterik ezin dugu egin.

Eusko Jaurlaritzari dagokio, txostenaren sustatzailea den aldetik, emaitzak baloratzea.

² Horri dagokionez, adierazi behar da, datuak babesteko indarreko legean ezarritakoari jarraiki, azterlan honetako informazioa Eusko Jaurlaritzari baizik ez zaiola emango.

III. Datuak

1960tik 2011ko abenduaren 31ra arte, legeak 6.000 pertsonari aitortu dio terrorismoaren zuzeneko biktimaren izaera; horietatik 1.400 hildakoak dira eta 4.400dik gora zauritu fisiko eta/edo psikikoak, % 60 inguruk baliaezintasun handia dutenak. Biktima gehienak, ia % 65, ETAk eragindakoak dira; % 20 nazioarteko terrorismo yihadistak; gainerakoa, % 15, eskuin edo ezker muturreko erakunde dagoeneko desagertuek, BVEk, A hiruoitzak, GALEk edo GRAPOk³.

Indarkeriaren gizarte-deslegitimazioa eta biktimen ikusgarritasuna, egindako kaltearen gizatiartzea eta kaltea zuzenean jasan duten pertsonak duintzea aldebereko fenomenoak dira. Hori dela eta, gure ustean, pertsonalizatzeak biktimak gauza bihurtzea (urte luzez gertatu dena) ekiditen du. Agerikoa den arren, estatistiketako kopuruen hondoan pertsonak daude. Pertsona horien izen-abizenak biltzea haien memoria aberastea da.

1. ETA:

1.1. Barne Ministerioa.

Zeinu bateko zein besteko erakunde terroristek eragindako hildakoen kopurua informazio-iturriaren arabera da. Barne Ministerioaren webgunearen arabera, 1960 eta 2014 urteen artean 1.380 hildako eragin ziren; 829 ETAK; 82 GRAPOk; 232 nazioarteko eta islamiar terrorismoak; eta 239 Ministerioak «besteak» deitutako horiek.

Ministerio beraren Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza Nagusiak 2009an egindako dokumentu batek kopuru horietako batzuk aldatu eta zehaztasun handiagoa du: 843 hildako eragin zituen ETAK eta 12 gehiago ETAr atxikitako erradikalismoak (855 guztira). Horietatik 842k jaso dituzte kalte-ordainak, Terrorismoaren Biktimen Babes Integralerako eta Errekonozimendurako 29/2011 Legea edo 1999ko Elkartasun Legea aplikatuta. Kalte-ordaina jaso gabeko biktima frantziar polizia Serge Nérin da, Frantzian hil zutena.

Zerrenda horretan daude, halaber, 1979ko uztailaren 12an, Corona de Aragón hotelaren sutean hildako 64 pertsonak. Egun hartan, asko ziren hotelean ostatu hartutako militarrek eta beren senideak, Akademia Militar Nagusia ofizial berriei idatzagiriak emateko ekitaldia ospatzekoa zen eta. Hoteleko bezeroen artean zegoen Carmen Polo, Francisco Franco diktadorearen alarguna, Villaverdeko markesek eta horien seme-alabek lagunduta. Horietako batek, Cristóbal Martínez-Bordiuk, ekitaldi militarren parte hartu behar zuen.

AVTk sortzetik beretik aldarrikatu du agintariak ETAK eginiko atentatu gisa aitortu behar dutela, nahiz eta gertatutakoa ez den inoiz guztiz argitu eta frogatu. Auzitegi Nazionalak 1980an emandako epaian berretsi zuen ez zela egiaztatu gertaera hura, 78 pertsona hil eta 113 zauritu zirena, egintza terroristak zenik. Hala, 1982an, Zaragozako Auzitegiak auzia largetsi zuen. Urte batzuk geroago, 2009an, Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzietarako Salak Terrorismoaren Biktimen Errekonozimenduaren Errege Ordenaren Gurutze Handia jasotzeko eskubidea aitortu zion biktima bati epai batean. Horretarako, kontuan hartu zuen aditu-txosten bat, esaten zuena sutea «ezin izan zuela piztu bere kasa ziharduen pertsona bakar batek, eta ausaz ere ez zela piztu». Biktimen senideek kalte-ordainak jaso zituzten 2000 urtean, Terrorismoaren Biktimekiko Elkartasunaren Legearen, 1999koaren, babesean.

Duela gutxiago, 2013ko apirilean, Fernando Andréu magistratuak, Auzitegi Nazionaleko 4. Instrukzio Epaitegi Nagusiaren titularrak, auzia berrieki zuen eta Poliziaren Informazio Komisaria Nagusiari agindu zion gertatutakoaren ardura ETAr ote zegokion jakinarazteko. Erakunde terroristaren baten parte-hartzea bermatu zezakeen datu berririk ez zuela aurkitu adierazi zion epaileari txosten bidez, eta magistratuak iazko uztailean artxibatu zuen auzia.

Barne Ministerioaren mendeko Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza Nagusiak 2010ean, Espainiari EBren presidentetza zegokiola eta, egindako txosten batean esaten denez, ETAK 856 biktima eragin zituen, 229 terrorismo islamikoak eta 297 beste talde batzuek, terrorismoaren biktimak, guztira, 1.382 direla.

³ Rodríguez Uribes, José Manuel. *Las víctimas del terrorismo en España*, Madril, Dykinson argitaletxea, 2013.

1.2. Biktimen elkarteak.

Elkarte nagusiak kidetuta dauden Terrorismoaren Biktimen Fundazioak (FVT) 1.222 hildako zenbatu zituen; 829, ETAk eragindakoak; 85, GRAPOk; 190, M-11ko atentatuak (koadro estatistikoetako batean kopuru hori ageri bada ere, beste batean 193 ageri da); 118 «besteak» izeneko atalean sartu dira; eta 22 atzerrian egindako atentatu terroristetan hil ziren.

COVITEren iritziz, 858 dira ETAk hildako pertsonak. AVTren webgunean ez dago estatistikarik.

1.3. Kasu eztabaidagarriak.

Jarraian, kontsultatutako iturrietako datuak gurutzatzean bat ez datozen edo kontrajarriak diren kasu jakin batzuk azaldu eta aztertuko ditugu. Errealitatea irudikatu nahi duen balorazioa denez, iritzi eta ekarpenetara ireki dago. Hala:

1960ko ekainak 28.- Begoña Urroz Ibarrola.

22 hilabete zituen Amarako (Donostia) tren-geltokian ipinitako bomba batek hil zuenean. Barne Ministerioak ETaren biktimatzat hartzen duen lehen pertsona da. Hala ere, Barne Ministerioaren beraren webgunearen arabera, erakunde terroristak lehen atentatua 1968an egin zuen, José Antonio Pardines Arcayren aurka. FVTk ez du sartu aipatutako erakunde terroristaren biktimen zerrendan (1968tik aurrerako biktimak daude), bai, ordea, COVITEk eta AVTk. ETaren biktima gisa ageri da, halaber, *Vidas Rotas* eta *La derrota de ETA* lanetan.

1992an egotzi zitzaion aurrenekoz egiletza ETari, gertatu eta hogeita hamabi urtera. Orain gutxiko ikerlan bati esker, 2013ko maiatzean 1961eko polizia-txosten bat topatu zen, egiletza Directorio Revolucionario Ibérico de Liberación (DRIL) erakundeari leporatzen ziona.

Kasua egile ezezaguneko atentatuen eta bestelakoen kategorian sartu dugu.

1975eko ekainak 26.- Fernando Fernández Moreno.

Lehergai baten eztandak hil zuen. Ez da Barne Ministerioaren eta FVTren zerrendetan ageri. *Vidas Rotas* liburuan ere ez da aipatzen. *La derrota de ETA, de la primera a la última víctima* lanean esaten denez, erakundeak ez zuen sekula bere gain hartu ekintzaren egiletza. AVTren eta COVITEren zerrendetan, aldiz, ETaren biktima gisa ageri da. *El Pueblo de Ceuta* egunkariaren arabera, egilea ez da ezagutzen.

Egile ezezagunekoen eta bestelakoen kategorian sartu dugu.

1975eko urriak 12.- Germán Aguirre Irasuegui.

Taxilaria. Hilda aurkitu zuten, garondoan hiru tiro emanda. ETAk ez zuen inoiz atentatua bere gain hartu. Ministerioak ETaren biktimatzat hartzen du, eta *Vidas Rotas* liburuak erakunde terrorista horri egozten dio hilketa, 1992an José Luis Álvarez Santacristina «Txelis» ETako buruzagiari atzemandako biktimen zerrenda bat oinarri hartuta. *La derrota de ETA* liburuan ez dute jaso horri buruzko datu eztabaidaezinik ez dagoelako. Eusko Jaurlaritzako Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak zehaztu gabeko eskuin muturreko taldeei leporatu zien hilketa.

Informazio gehiagorik ezean, egiletza ezezaguneko biktimen eta bestelakoen zerrendan jaso dugu.

1976ko uztailaren 23an.- Eduardo Moreno Bergaretxe «Pertur».

ETA politiko-militarreko buruzagia, Frantzian desagertu zen eta orain arte ez dute haren gorpua aurkitu. Talde terroristak Poliziari leporatu zion haren desagertzea, baina ordutik egindako ikerketek ez dute baztertzin Bereziak taldeetako kideek bahitu izana, erakundeak jarraitu beharreko estrategiari buruzko desadostasunak baitzituen haiekin. Zinema-zuzendari eta ETA pm-ko kide ohi Ángel Amigok kasuari buruzko dokumentu bat egin zuen, eta horretan, Poliziaren aginduz Frantziako hegoaldean ETaren aurkako hainbat atentatu egin zituzten neofaxista italiarrei egotzi zien bahiketa.

Fernando Andreu epaileak auzia behin-behineko largesteko agindu zuen 2012ko irailean, ezin baitzen gertatutakoaren argumentu-lerrorik zehaztu eta ez baitzegoen zantzu oinarridunik inor desagernetaren arduradun jotzeko.

Egiletza ezezaguneko biktimen eta bestelakoen zerrendan jaso dugu.

1977ko ekainaren 13a.- José María Basáñez Jáuregui.

COVITEk baino ez dio atentatua ETari leporatzen. Biktima ez dago jasota Barne Ministerioaren, FVTren eta AVTren ETaren biktimen zerrendetan. Ezta *Vidas Rotas* edo *La derrota de ETA* liburuetan ere. *Eldiariomontañes.es* egunkariak dio Jesús María (Josu) Basáñez Jáuregui 1977an lehegailu bat esku artean zartatuta hil zen ETako kide bat zela. Pertsona bera den baieztatzeko daturik ez dugu aurkitu.

Ez dugu gure zerrendan sartu.

1977ko ekainaren 26a.- Valentín Godoy Cerezo.

Polizia Armatuko kidea. G Bikoitza (Gazte Gudarostea) izeneko talde ezezagun batek hartu zuen bere gain haren hilketa. Ez dago jasota Barne Ministerioaren eta FVTren zerrendetan, baina bai AVTren eta COVITEren zerrendetan. *Vidas Rotas* liburua ere jasotzen du, baina ez *La derrota de ETA* liburua. Barne Ministerioak ez du biktimen bere zerrendan jaso, baina 2005eko martxoaren 18an egindako Ministroen Kontseiluak Poliziako Ofizial mailara igo zuen terrorismoaren biktima gisa. Horiek horrela, izaera horrekin jaso dugu zerrendan, baina egiletza ezezaguneko biktimen eta bestelakoen zerrendan.

1978ko apirilaren 16a.- Jesús Lolo Jato.

Ez dago jasota Barne Ministerioaren zerrendaren biktimen artean, ezta FVTren zerrendan edo *Vidas Rotas* liburuan ere, baina bai AVTren eta COVITEren zerrendetan. *El País* egunkariak 1978ko apirilaren 16ko edizioan jakinarazi zuen identifikatu gabeko bi gazte tiroka hasi zirela aurreko gauean Portugaleteko (Bizkaia) bi udaltzainen aurka. Lolo Jatok zauri larriak pairatu zituen eta bere lankideak ez zuen zauririk ⁴. Gorpil-aulkian, ebakuntza ugari egin zizkioten eta 25 urte geroago hil zen, 2003ko maiatzaren 17an. Data hori aipatzen dute AVTren eta COVITEren zerrendetan.

Auzitegi Nazionalen auziaren prozesu-egoera ezagutzeko aurkeztu zuten argitu gabeko hilketen zerrendan jaso zuten biktimen elkarteek. Biktimei Laguntzeko bere bulegoan ebazpen judizial gisa auziaren behin-behineko artxibatzea ageri da. Gure ustez atentatutik heriotzara arte igarotako denboragatik ez dago kausalitate-erlazio bat ezartzerik. Ez dugu jaso ETaren biktimen gure zerrendan.

1978ko maiatzaren 18a.- Alfredo Aristondo Trincado.

Barne Ministerioak ez du ETaren biktimatzat hartzen, eta ez dago jasota, halaber, FVTren, AVTren eta COVITEren zerrendetan, baina, kontraesankorra bada ere, bai agertzen dela biktimen elkarteek Auzitegi Nazionalari emandako argitu gabeko atentatuen biktimen zerrendan, eta bertan diote auziak «epaia» duela. *Vidas Rotas* liburua biktimen zerrendan jasotzen du eta *La derrota de ETA* liburua dio atentatu batean zauriturik gertatu zela baina ez zela horren ondorioz hil. Bildutako datuen arabera, Alfredo Aristondo balaz zauriturik gertatu zen baina ez zen hil. Bi urte eta erdi geroago, 1980ko azaroaren 6an, Auzitegi Nazionalak Ramón Sagarzazu Mendibe etakidea zigortu zuen huts eginiko hilketa baten egile gisa.

Ez dugu jaso ETaren biktimen estatistika-taulan.

1978ko maiatzaren 24a.- Martín Merquelanz Sarriegi.

Barne Ministerioak ETaren biktimatzat hartzen du. FVT, AVT eta COVITE elkarteek beren zerrendetan jaso dute. Taxilaria ogibidez, hainbat lankidek haren gorpua aurkitu zuten. Buruan tiro bat eman zioten; gainera, esku bat hautsita eta hainbat kolpe eta ubeldura ere bazituen gorputzean ⁵. Bere alaba Ana Merquelanzek parte hartu zuen Eusko Jaurlaritzaren Glen Cree ekimenean. ETaren biktimen eta lehenengoaren aurka aritu ziren talde parapolizialen eta eskuin muturreko taldeen biktimen arteko topaketa errazteko sustatu dute ekimen hori. Merquelanzek BVEren biktima gisa esku hartu zuen. Eusko

⁴ 1978ko apirilaren 18ko *El País* egunkaria.

⁵ 1978ko maiatzaren 25eko *ABC* egunkaria.

Jaurlaritzak horien artean sartu zuen «Talde inkontrolatuek, eskuin muturreko taldeek eta GALEk eragin-dako terrorismoaren biktimei buruzko txosten»ean.

Horiek horrela, BVEren biktimen zerrendan jaso dugu.

1978ko ekainaren 29a.- Jesús Manuel Campos Rodríguez.

Ikastetxearen kanpoaldean, beste ikaskide batzuekin bengala batekin jolasean ari zela, bengala hori zartatuta hil zen ⁶ Pasai San Pedroko udalerrian (Gipuzkoa). Barne Ministerioak ez du ETaren biktima-tzat hartzen, eta ez dago jasota FVTren zerrendan, baina bai AVTren eta COVITEn zerrendetan.

Ez dago gure zerrendetan jasota.

1978ko azaroaren 15a.- Emilia Larrea Sáez de Adana.

Ez dago jasota Barne Ministerioaren biktimen zerrendan, ezta FVTren zerrendan ere, baina bai AVTren eta COVITEn zerrendetan. *Vidas Rotas* liburuak dio Komando Autonomo Antikapitalisten (CAA) eta guardia zibilen arteko tiroketa baten ondorioz hil zen emakume bat dela. *La derrota de ETA* liburuak jasotzen duen kontakizunak tesi hori aldatzen du; horren arabera guardia zibilen arteko tiroketa baten biktima izan zen, guardia zibil batzuek kalez jantzitako beste guardia zibil batzuk terroristekin nahastu ondoren.

Egun hartan bi tiroketa izan ziren. Bata, Guardia Zibileko eta Komando Autonomo Antikapitalistetako (CAA) kideen artean –bi terrorista hil zituzten–, eta bestea, Aretxabaletako eta Arrasateko kuarteletako guardia zibilen artean, lankideak tirokatu baitzituzten etakideak zirelakoan (kalez jantzita eta armak eskuan zihoa-zen). Bigarren tiroketa horren ondorioz hil zen Emilia Larrea. Eusko Kontseilu Nagusiaren (egungo Eusko Jaurlaritzaren aurreko erakundea) Herrizaingo Sailaren ohar batek, 1978ko azaroaren 16koak, honela zioen: «Lehen tiroak izan eta hiru bat minutu geroago beste ibilgailu bat iritsi zen eta Guardia Zibileko hainbat kide jaitsi ziren handik, kalez jantzita antza denez; guardia zibil horiek, metrailetak zeramatzaten gizon armatu batzuk ikusita (Guardia Zibileko lehen kideak, hain zuzen), tiro egin zuten horien aldera, eta horren ondorioz Emilia Larrea andrea hil zuten, baita beste hiru lagun gehiago zauritu ere».

Ez dugu gure zerrendetan jaso.

1979ko martxoaren 5a.- Agustín Muñoz Vázquez.

Brigadako jenerala, etxeko atean hil zuten auto ofizialek jaistear zegoenean. Ez dago jasota Barne Ministerioaren ETaren biktimen zerrendan. COVITE eta AVT elkarteek hilketaren egiletza erakunde horri egozten diote, eta FVTk GRAPO taldeari (egiaz talde hau izan zen). Auzitegi Nazionalak GRAPOko José María Sánchez Casas, Antonio Tosina García, Alfonso Rodríguez García eta María del Carmen López Anguita kideak epaitu zituen 1980ko urrian atentatuaren ustezko arduradun gisa ⁷. GRAPOko lau kideak urte horretako azaroaren 18an zigortu zituzten atentatuaren egile gisa ⁸.

1979ko maiatzaren 17a.- Emeterio de la Fuente Aller.

Brigadako jeneral erretiratua, Barne Ministerioak ez du ETaren biktimen artean jaso, eta FVTk GRAPOren biktimen zerrendan sartu du. COVITE eta AVT elkarteek ETari egozten diote hilketa, eta 1979ko uztai-laren 1ean izan zela diote. *Vidas Rotas* eta *La derrota de ETA* liburuek ez dute aipatzen. GRAPOk urte horretako maiatzaren 17an egindako atentatu baten biktima izan zen ⁹, eta bi hilabete geroago hil zen.

1979ko abuztuaren 2a.- Juan José Lopategi Carrasco.

ETAko kidea, Lapurdiko Angelun buruan jasotako tiro baten ondorioz hil zen. Barne Ministerioak ETaren biktimen bere zerrendan jaso du. AVTk ez du aipatzen terrorismoaren biktimen zerrendan. COVITEk hilketa BVeri egozten dio. Eusko Jaurlaritzak ere talde horri leporatu dio.

BVEren biktimen zerrendan jaso dugu.

⁶ *El País* egunkaria, 1978ko ekainak 30.

⁷ *El País* egunkaria, 1980ko urriak 2.

⁸ *ABC* egunkaria, 1980ko azaroak 19.

⁹ *El País* egunkaria, 1979ko maiatzak 17.

1979ko irailaren 23a.- Carlos Seijas Fernández.

Itsas infanteriako kapitaina, Ferrolgo basean hil zuen Antonio Cabanillas Cabrera kaboak. Gerra Kontseilu batek 30 urteko giltzapealdira zigortu zuen kaboak. AVTk baino ez du ETArekin biktimatzen hartzen.

Aipatutako kaboak ahozko ikustaldian adierazi zuen kapitaina tirokatu egin zuela berari eta familiari gerta zekiekeenaren beldur, bere aitak Basaurin zuen arotzeriako tailerrean ETArekin egotzitako hainbat ohar ikusi baitzituen; horien bidez ETArekin eskatzen zion berehala ekiteko baseko komandantearen aurka. Lekukotasun hori oinarri hartuta, hildako militarren alargunak terrorismoaren biktima gisa hil osteko Gurutze handia eskatu zuen bere senararentzat 2000ko urtarrilaren 24an; eskaera hori, baina, ezetsi egin zuen 2008ko azaroaren 14ko Ministroen Kontseiluak. Gobernuak alegatu zuenez, Barne Ministerioaren 2001eko txosten batek adierazten zuen ez zela egiaztatu aipatutako gertaeretan terrorismoak zerikusia izan zuenik eta «aipatutako domina terrorismoaren biktimentzat» bakarrik dela.

Barne Ministerioak 2001eko martxoko eta uztaileko bi ebazpenetan ere ukatu zuen familiak egindako kalte-ordainaren eskaera, Terrorismoaren biktimen elkartasunerako Legearen babespean. Uko horren aurkako helegitea aurkeztu zuten Auzitegi Nazionalan, baina kalte-ordaina ematea ezetsi zuen horrek heriotza ez zela atentatu terroristaren baten ondorioa izan iritzi.

Auzitegi Gorenak Ministroen Kontseiluaren erabakia indargabetu zuen 2010eko otsailaren 16an, uste baitzuen elementu nahikoak zeudela ulertzeko aipatutako heriotza Terrorismoaren biktimen elkartasunerako Legeak babestutako kasuetan sartzen zela; izan ere, egileak adierazi zuenez, ETArekin lotutako beldurrak eta presioek eraginda jardun zuen. Auzitegiaren iritziak, kaboaren ekintza lege horren hirugarren kasuan sartzen dela, hau da: «herritarren bakea eta segurtasuna modu larrian asaldatzeko jokatzeko duen (...) pertsonak edo pertsonen gauzatutako gertaerak».

Salaren epaiak zioenez, gertaerak jazo zirenean horiek ez ziren egokitzen orduan terrorismoaren delitutzat hartzen ziren eta zigor-kondena jaso behar zuten gertaeretara, baina agerian utzi zuen egoera hori bai dagoela jasota 1999ko lege-testuan; halaber, epaian dio gertaera horiek onartzea ez dagoela lotuta terrorismo-delituagatikoa kondena ezartzen duen epai irmo bat egotearekin.

Biktimen gure zerrendan ez jasotzea erabaki dugu.

1979ko irailaren 30a.- Santos Sampedro Lozano.

Guardia Zibileko agenteek errore baten ondorioz tirokatu zituzten biktima eta lankidea, Carlos Martínez Manuel, zauri larriak izan zituena, beraiengana pistolak eskuan hurbiltzen ari zirela ikusita ¹⁰. COVITE eta AVT elkarteek ETArekin leporatzen diote hilketak, baina ez Barne Ministerioak ezta FVT elkarteak ere.

Ez dago gure zerrendan jasota.

1979ko urriak 7.- Eugenio Recio Guzmán eta Manuel Pérez Comerón.

Guardia Zibileko sarjentuak, Kantabriako Puente Arceko kuartel-etxearen barruan hil zituzten Guardia Zibileko bi kide ohik ¹¹. Horrela ere jasota dago kasua *La derrota de ETA* liburuan. COVITE eta AVTren zerrendetan ETArekin biktima gisa ageri dira, baina ez FVTren edo Barne Ministerioaren zerrendetan.

Ez ditugu biktimen gure zerrendan jaso.

1980ko urtarrilak 20.- Liborio Arana Gómez, Manuel Santacoloma, Pacífico Fica Zuloaga eta María Paz Ariño Varón.

Bizkaiko Alonsotegi udalerriko Aldama tabernaren atean sei kilo goma-2k osatutako lehergailua zartatuta hil ziren. AVTk ETArekin biktimen artean jasotzen ditu; COVITEk GAE *Grupos Antiterroristas Españoles* taldeari egozten die atentatua, eta FVTk eskuin muturrari. GAE ultraeskuindarrak bere gain hartu zuen atentatua biharamunean ¹².

Lau biktimak GAEn zerrendan jaso ditugu.

¹⁰ *El País* egunkaria, 1979ko urriak 2.

¹¹ *El País* egunkaria, 1979ko urriak 9.

¹² *El País* egunkaria, 1980ko urtarrilak 22.

1980ko otsailak 17.- Mario Cendán Geimonde.

Taxilaria ogibidez, ETAk ez zuen inoiz hilketa bere gain hartu. Ez Barne Ministerioak ezta FVTk ere ez dute ETaren biktimatzat hartzen, baina bai AVTk eta COVITEk. *Vidas Rotas* liburuan ere ez da agertzen. *La derrota de ETA* liburuan zalantzarik kasua dela diote, eta gaineratzen du hiltzaileak bala-zorroa eraman zuela, eta hori ez da inoiz izan ETaren modus operandia.

Talde terroristaren biktimen artean jasotzea baztertu dugu datu eztabaida ezinik ez dagoelako.

1980ko uztailaren 23a.- Antonio Contreras Gabarra, María Contreras Gabarra eta Anastasio Leal Serradillo.

Bilboko Amezola plazan dagoen Iturriaga ikastola-hurtzaindegitik gertu ipinitako lehergailu baten ondorioz hil ziren hirurak¹³. COVITE eta AVT elkarteek ETARI egozten diote atentatu hori, eta FVTk eskuin muturrari. Atentatuak Triple A taldeak hartu zuen bere gain, eta horren zerrendan sartu ditugu biktimak.

1980ko azaroak 6.- Jeanine Pueyo.

Barne Ministerioak ez du ETaren biktimatzat hartzen, eta FVTren, AVTren eta COVITEn zerrendetan ere ez dago jasota. *Vidas Rotas* liburuan diote horren hilketa KIBAETAM ETA Militarra Laguntzeko Komando Independente Bereziak deitutakoek hartu zutela beren gain. Joseph Zuritaren neskalaguna zen; mertzenario bat zen hori, eta Juan José Etxabe etakidearen aurkako atentatuan esku hartu zuen; Etxaberen emaztea hil zen atentatu horretan.

Egiletza ezezaguneko biktimen eta bestelakoen zerrendan jaso dugu.

1982ko urtarrilaren 2a.- Pablo Garayalde Jaureguizábal.

Ez dago jasota Barne Ministerioaren ETaren biktimen zerrendan. COVITE eta AVT elkarteek ETARI egozten diote hilketa hori, eta FVTk eskuin muturrari¹⁴. Triple Ak hartu zuen bere gain hilketa, eta halakotzat jaso dugu gure zerrendan.

1982ko abuztuak 27.- José Luis Barona Zorilla eta Francisco Javier Angulo Fernández.

Biak egun berean hil zituzten Bilbon egindako bi atentatutan. COVITE eta AVT elkarteek diote ETAk egin zituela biak. Ez Barne Ministerioak ezta FVTk ere ez dituzte ETaren biktimen zerrendan jaso. *Eta Vidas Rotas* liburuan ere ez daude jasota ETaren biktima gisa. *La derrota de ETA* liburuak drogaren munduarekin lotutako kontu-garbitze bati egozten dizkio hilketa horiek. Zentzu horretan ere jakinarazi zituen *El País* egunkariak 1982ko abuztuaren 28an.

Ez ditugu ETaren biktimen gure zerrendan jaso.

1982ko urriaren 5a.- Juan Carlos Ribeiro de Aguiar.

Haren gorpua Bermeo eta Bakio udalerririk lotzen dituen errepideko bazterbidean aurkitu zuten, tirokatuta. Poliziak hilketaren egilea ETA izan zitekeela espekulatu zuen, baina ez zuen baztertu drogengatik kontu-garbitzea izatea. Ez Barne Ministerioak ezta FVTk ere ez dituzte ETaren biktimen zerrendan jaso. Bai, ordea, COVITEk eta AVTk. *Vidas Rotas* liburuak aipatzen du 9 mm parabellum kalibreko zenbait bala-zorro (erakunde terrorista horrek munizio hori erabili ohi du) aurkitu zirela krimena ETARI leporatzeko. Berdin ere egiten du *La derrota de ETA* liburuak.

Ez dugu gure zerrendan jaso gure iritziz ez dagoelako elementu nahikorik adierazteko hilketa erakunde terroristak egin zuela.

1983ko otsailaren 20a.- Luis Manuel Allende Porrúa.

ETAk bahitu zuen 1982ko ekainaren 1ean, eta bederatzi egun geroago askatu zuen, erreskatea ordain-

¹³ *El País* egunkaria, 1980ko uztailak 24.

¹⁴ *El País* egunkaria, 1982ko urtarrilak 5.

du ondoren. Ondoren minbizia garatu zuen, eta urtebete geroago hil zen. Familiak bahiketari egotzi zion gaixotasuna. Auzitegi Nazionalak 1985eko martxoan José Hernández Iñigo eta Juan Luis Bicandi Iturbe etakideak zigortu zituen bahiketaren egile gisa, baina epaian ez dute adierazi horien biktimaren heriotzak zerikusirik duenik bahituta egon zen aldiarekin ¹⁵.

Geroago, Bilboko Lehen Auzialdiko 3. Epaitegiak, erantzukizun zibileko demanda batean, gaixotasuna bahiketari pairatutako estres bortitzak eragin zuela erabaki zuen 1988ko otsailean, eta familiarentzat 30 milioi pezetako kalte-ordaina agindu zuen. Barne Ministerioak ETaren biktimen artean jaso du.

Horrenbestez, epai judizialarekin batera jaso dugu gure zerrendan. Txostenaren egileen gehiengo bidez hartu da erabaki hori.

1983ko ekainaren 23a.- Juan Emilio Casanova López.

Barne Ministerioaren ETaren biktimen zerrendan jasota dago. *El País* egunkariak biktima Emilio Juan Casanova López zela esan zuen ¹⁶, eta hala FVTk nola AVT eta COVITEk sartu dute beren zerrendetan. Lehena, CAAren biktima gisa; beste biak, ETaren biktima gisa.

Biktima gure zerrendan sartu dugu Barne Ministerioak emandako nortasunarekin.

1983ko irailaren 6a.- Francisco Julián Alberdi Igartua.

Barne Ministerioak ez du ETaren biktimatzat jotzen, ezta FVTk eta COVITEk ere, baina bai AVTk. *Vidas Rotas* liburuak hilketa ETari egotzen dio, baina biktimari Francisco Javier Alberdi Iriarte izen okerra ematen dio. Salmentetako ordezkaria Gorostiaga y Goytisolo enpresan, *El País* egunkariak irailaren 8ko edizioan esan zuen egileak biktima lapurtu nahi zuten gaizkile arruntak izan ziren hipotesia aztertzen ari zela polizia (ez dugu geroagoko erreferentziarik aurkitu). Horixe bera jasota dago *La derrota de ETA* liburuan. Biktimen elkarteek hilketa hori jaso zuten Fiskaltzari eta Auzitegi Nazionalako Biktimei Laguntzeko Bulegoari aurkeztutako argitu gabeko kasuen zerrendan. Azken horrek egindako txostenean artxibatuta dagoela ageri da ebazpen judizialari dagokionez.

Ez dugu jaso ETaren biktimen gure zerrendan.

1983ko urriaren 12a.- Raúl Santamaría Alonso eta Jesús Postigo Pérez.

Bi polizia horien hilketa AVTren terrorismoaren biktimen zerrendan ageri da, egiletza ezezaguna dela aipatuta. Ez daude jasota COVITEren, FVTren edo Barne Ministerioaren zerrendetan. Gaizkile arrunt batek hil zituen bi poliziak Burgosko ospitaletik ihes egin ondoren; hara espetxetik eraman zuten guraize batzuez bere burua zauritu zuelako ¹⁷.

Ez ditugu gure zerrendetan jaso.

1984ko abenduaren 26a.- Pedro García Suárez.

Hedabideek egun horretan ETak Miguel Castellanos Escamilla, Gurea tabernaren jabea, hil zuela jakinarazi zuten; hamaika urte geroago nortasun hori gezurrezkoa zela frogatu zen. Biktima Pedro García Suárez zela identifikatu zuten orduan. Izen horrekin ageri da Barne Ministerioaren eta FVTren zerrendetan, eta horrela ere jaso dugu ETaren biktimen gure zerrendan. Uste dugu COVITEk bere zerrendan Pedro Pardo Romero izenarekin aipatzen duen biktima izan daitekeela. AVTk ez du egun horretan biktimarik jaso hiru nortasun horietakoren batekin.

1985eko uztailaren 1a.- Esther Grijalba Gómez.

COVITE eta AVT elkarteek ETari egotzen diote hilketa, eta 1985eko uztailaren 11n izan zela diote. FVTk «terrorismo arabiarra»-ri egotzen dio. ABC egunkariak Madrilgo Kale Nagusiko British Airways enpresaren bulegoen aurkako atentatu baten berri eman zuen uztailaren 2an. Orduko barne-ministro José Barrionuevok terrorista arabiarrei egotzi zien. Ez dago jasota Barne Sailaren biktimen zerrendan.

Ez dugu gure zerrendetan jaso.

¹⁵ *El País* egunkaria, 1985eko martxoak 5.

¹⁶ *El País* egunkaria, 1983ko ekainak 24.

¹⁷ *El País* egunkaria, 2008ko abuztuak 2.

1986ko ekainaren 1a.- Juan Caballero Porral.

Abokatu donostiar hori miokardio-infartu batek jota hil zen hainbat pertsona bere etxean bahitu nahian ari zirenean ¹⁸. Barne Ministerioaren zerrendan ageri da ETAREN biktima gisa. Ez dago jasota FVTren, AVTren eta COVITEn zerrendetan, eta haren heriotza Vidas Rotas zein La derrota de ETA liburuetan ere ez da ageri. Erakunde terroristak ez zuen inoiz bahiketa-saioa bere gain hartu. Egiletza ezezaguneko biktimen eta bestelako zerrendan jaso dugu.

Desadostasun handiak izan dugu gure zerrendan sartzeaz. Txostenaren egileen gehiengo bidez hartu da erabaki hori.

1986ko ekainaren 28a.- Carlos José Marrero Sanabria.

Guardia Zibila, atentatu batean zaurituta gertatu zen (bere lankide Francisco Muriel Muñoz hil zen atentatu horretan). Marrero Sanabriak ondorio psikiko larriak izan zituen, eta horien ondorioz Kanaria Handiko Las Palmaseko zentro psikiatriko batean sartu zuten. Bere buruaz beste egin zuen 1988ko urtarrilaren 10ean ospitalean, bisitatzera joan zen lankide bati arauko arma kendu ondoren ¹⁹. Barne Ministerioak ETAREN biktimatza hartzen du. Baita FVTk, COVITEk eta AVTk ere.

Ez dugu gure zerrendetan jaso.

1986ko abenduaren 11.- Francisco Royo Giménez.

Bartzelonako auto-kontzesionario baten aurrean kokatutako bonba-auto baten leherketak eragin zion. Leherketaren ondorioz estres emozional bizia pairatu zuen eta ondoren infartu bat; hilda sartu zen Príncipes de España ospitalean. Barne Ministerioak ETAREN biktimatza hartzen du. FVTren ETAREN biktimen zerrendan ageri da, ez, ordea, AVT eta COVITenean.

ETAREN biktimen gure zerrendan jaso dugu. Txostenaren egileen gehiengo bidez hartu da erabaki hori.

1987ko urtarrilaren 27a.- Francisco Javier Biurrun Monreal.

Bere izenean igorritako bonba-pakete bat zartatuta hil zen. COVITEk eta AVTk ETARI egozten diote atentatua, baina FVTk ez du jasotzen erakunde terroristaren zerrendan, ezta Barne Ministerioak ere. Urte batzuk geroago prozedura berari jarraikiz beste hiru pertsona gehiago hil zituen soldatapeko hiltzaileen talde bati egotzi zioten hilketa hori ²⁰.

Ez dugu gure zerrendetan jaso.

1988ko irailaren 26a.- Francisco Herrera Jiménez.

Barakaldoko (Bizkaia) talde sozialistako antolamenduko idazkari ohia, desagertu zen lanetik etxera zihoa-nean. Garaiko hedabideek jakinarazitakoaren arabera, hainbat lagun hurbildu zitzaizkion eta haren autoan sartzerako behartu zuten. Haren gorpua urkatuta eta eskuak bizkarrean lotuta ageri zen egun batzuk geroago.

Ricardo García Damborenea Bizkaiko sozialisten orduko idazkariak ETAREN egiletza baztertu zuen ²¹. FVTren zerrendan ageri da, ez, ordea, AVTren eta COVITenean. Vidas Rotas liburuak ez du haren kasua jasotzen talde terroristak egindako atentatuen artean, eta La derrota de ETA liburuak dio mehatxu ugari eta etengabeko jazarpena jaso zuela ETAREN inguruetatik eta bere buruaz beste egin zuela presioari eutsi ezinik. Barne Ministerioak ETAREN biktimatza hartzen du.

Ez dugu gure zerrendetan jaso.

1988ko azaroaren 7a.- Andrés Marcet Balsells.

Bartzelonako enpresaburua, autoaren azpian jarritako lehergailu bat zartatuta hil zen. COVITEk zein AVTk ETARI egozten diote, baina FVTk ez, ordea. Barne Ministerioak ere ez du hartzen erakunde terrorista ho-

18 ABC egunkaria, 1986ko ekainak 3.

19 El País egunkaria, 1988ko urtarrilak 12.

20 El País egunkaria, 1994ko azaroak 6.

21 El País egunkaria, 1988ko urriak 1.

rrren biktimatzat. ETAK ez zuen inoiz atentatua bere gain hartu. Ez dago inolako aipamenik *Vidas Rotas* liburuan eta *La derrota de ETA* liburuak baztertzeko du erakundearen biktima izatea. Ez zuen ezein erakunde terroristak hartu bere gain hilketa.

Egiletza ezezaguneko biktimen eta bestelakoek zerrendan jaso dugu.

1989ko irailaren 20a.- José Antonio Cardosa Morales.

Postaria lanbidez, HB Herri Batasuneko Alfonso Salazar Uriarte militanteari zuzendutako bonba-pakete bat zartatuta hil zen. Aurretik Alfonso Salazar bost aldiz atxilotu zuten eta urtebeteko espetxealdia bete zuen ETAREN laguntzailea izatea egotzita²². Krimenaren egilea nor izan den ez dute argitu. Koalizio abertzaleak atentatua talde parapolizialei egotzi zien eta Baltasar Garzon epaileak GALen balizko egiletza ikertu zuen (haren azken atentatu ezaguna bi urte lehenago izan zen), baina auzia largetsi egin zuten 2000n.

Ez FVTk ez AVTk ez dute beren zerrendetan jaso, eta COVITEK GAL taldeari egotzen dio. Barne Ministerioak Cardosa Morales ETAREN biktimen artean jaso zuen.

Egiletza ezezaguneko biktimen eta bestelakoek zerrendan jaso dugu.

1991ko maiatzak 29.- Ramón Mayo García.

ETAK Vic herriko kuartel-etxearen aurka egindako atentatuaren biktimei laguntzen ari zenean zaurituak zeramatzan anbulantzia batek harrapatu zuen eta pairatutako zaurien ondorioz hil zen. 2014ko abuztuaren 1ean egindako Ministroen Kontseiluaren erreferentziak jasotzen du errege-dekretu bat onartu zela Terrorismoaren Biktimei Aitorpen Zibila egiteko Errege Aginduaren Gurutze Handia, hil ostean, emateko. Hedabideei emandako oharrek honela dio: «Ramón Mayo García: guardia zibila, ETA erakunde terroristak Vic herrian (Bartzelona) 1991eko maiatzaren 29an hil zena: Vic herriko kuartel-etxearen aurkako bonba-autoa.»

Ez dugu gure zerrendetan jaso.

1994ko urtarrilaren 14a.- José Santos Pico.

Polizia Nazionaleko kidea, bere buruaz beste egin zuen etxean buruan tiro bat emanez. Gobernuak ez zion biktima-izaera aitortu, baina bai Eusko Legebiltzarrak 2000an. AVTk terrorismoaren biktimen zerrendan jasotzen du, baina ez dio egiletza ETARI egotzen. COVITEK haren kasua «bestelakoak» izenburupean jasotzen du. Ez dago jasota FVTren zerrendan, ezta *Vidas Rotas* liburuan ere. Poliziaren alargunak –Eva Patok– *Soitu.es* egunkari digitalari 2009ko irailaren 23an adierazi zion ETAK bultzatu zuela bere buruari tiro egitera. Iparraldeko sindromea esaten zaion egoeraren aurrean gaude; Euskal Herrian jardun zuten Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoetako kide askok pairatu zuten hori.

Ez dugu biktimen gure zerrendan jaso.

1995eko urtarrilaren 13a.- Domingo Durán Díez.

ETAK 1995eko urtarrilaren 13an egindako atentatu batean oso zauri larriak pairatu zituen, eta tetraplegiko gelditu zen. 2003ko martxoaren 7an hil zen. Ez dago Barne Ministerioaren zerrendan hildako gisa jasota, zauritu larri gisa baizik, eta ez da ageri FVTren biktimen zerrendan, baina bai AVTren eta COVITERen zerrendetan.

Ez dugu biktimen gure zerrendan jaso.

10. Abendua.1995.- José Luis González Villanueva eta Ignacio Mendiluce Etxeberri.

Bi ertzainak hil zituen Jarrai erakundearen aldeko Mikel Otegi Unanuek Itsasondon (Gipuzkoa). Epaitu zuen zinpeko epaimahaiak absolbitu egin zuen, agenteen aurka tiro egitean, lehenago edandako alkoholagatik, bere buruaren jabe ez zela irizita. Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Epaitegi Nagusiak (EAEAN) epaia balio gabetu zuen 1997an eta auzia Donostiako Probintzia Auzitegira itzularazi zuen, epaimahai berria eratu eta Otegi berriz ere epaitzeko²³. Hala ere, ihes egin zuen eta 2003ra arte ezin izan

²² *El País* egunkaria, 2010eko martxoak 21.

²³ *El País* egunkaria, 1997ko ekainak 28.

zuten atxilotu. Frantzian atxilotu zuten, ETAREN talde bateko kide gisa ²⁴. Bertan epaitu zuten eta zazpi urteko kartzela zigorra ezarri zioten asmo terroristako gaizkileen elkarteko kide izateagatik. 2009an utzi zuten Espainiaren esku eta Auzitegi Nazionalak 34 urteko espetxealdia ezarri zion. Lehenago, 2005ean, Gipuzkoako Probintzia Auzitegia aipatutako auzitegiaren alde inhibititu zen, erakunde terroristen kideek egingako delituak epaitzeko eskumena auzitegi horri dagokiola iritzita. Ez daude jasota Barne Ministerioaren ETAREN biktimen zerrendan.

Ez dugu gure zerrendetan jaso.

1996ko urriak 14.- Serafín Apellaniz Pagola.

1979ko maiatzaren 16an bahitu zuten, eta ordu batzuk geroago askatu, hanka batean tiro bat jo ondoren ²⁵. Ez da Barne Ministerioaren eta FVTren biktimen zerrendetan ageri, bai, ordea, AVTrenean eta COVITerean (hilketari aipatutako data egokitzen diote). Ezta *Vidas Rotas* edo *La derrota de ETA* liburuetan ere.

Ez dugu gure zerrendan sartu, ez dugulako aurkitu aipatutako biktimen elkartean datua egiaztatzen duen informaziorik.

1997ko maiatzak 12.- Servando Rivas Pérez.

AVTren eta COVITeren zerrendetan ageri da ETAREN biktima gisa. Barne Ministerioaren zerrendan, FVTrenean eta *Vidas Rotas* zein *La derrota de ETA* liburuetan, berriz, ez da ageri. Ez dugu topatu erakundearen egiletza egiaztatu dezakeen erreferentziarik.

Ez dugu gure zerrendetan jaso..

2007ko martxoak 3.- Ambrosio Fernández Recio.

Etxean lotan zela, 2007ko urtarrilaren 6an, Arrasaten, *kale borrokan* ari ziren gazte batzuek bomba sukoiak bota zituzten bere etxearen azpiko banketxearen kutxazainaren aurka. Gizon zaharra eta beste bizilagun batzuk ere etxetik atera behar izan zituzten. Egun batzuk geroago, ZIUn ospitaleratu zuten. Martxoaren 3an hil zen. Mediku batek egiaztatu zuenez, gau hartan gertatutakoak nabarmen txartu zuen zaharraren osasuna eta heriotza eragin zion. Barne Ministerioak ETAREN eta talde kidetuen biktimen zerrendan jaso du.

Ez dugu gure zerrendetan jaso. Txostenaren egileen gehiengo bidez hartu da erabaki hori.

2. BVE eta talde sateliteak.

2.1. Barne Ministerioa.

11 biktima hartzen ditu kontuan. Hala ere, eskuin muturrekoen biktimen (zehaztapen gehiagorik gabe) kategorian sartutako 21 biktimak aintzat hartu behar dira.

2.2. Biktimen elkarteak.

FVTk ez ditu *Grupos Antiterroristas de Liberación* (GAL) eta *Batallón Vasco Español* (BVE) erakundeen eta bere talde sateliteen biktimak aintzat hartzen. Gutxi batzuk hartu ditu kontuan, eskuin muturrekoen kategorian, hain zuzen.

²⁴ *El Mundo* egunkaria, 2003ko otsailak 23.

²⁵ *El País* egunkaria, 1979ko martxoak 17.

3. GAL.

3.1. Barne Ministerioa.

16 biktima hartzen ditu kontuan. Hala ere, eskuin muturrekoen biktimen (zehaztapen gehiagorik gabe) kategorian sartutako 21 biktimak aintzat hartu behar dira.

3.2. Biktimen elkarteak.

FVTk ez ditu *Grupos Antiterroristas de Liberación* (GAL) eta *Batallón Vasco Español* (BVE) erakundeen eta bere talde sateliteen biktimak aintzat hartzen. Gutxi batzuk hartu ditu kontuan, eskuin muturrekoen kategorian, hain zuzen.

IV. Emaitzak.

Oro har, ETAREN indarkeria terroristak, eskuin muturreko kontrolik gabeko taldeen eta terrorismoari aurka egiteko erakundeen indarkeria terroristak eta egile ezezagunenak 927 hildako eragin dituzte 1960 eta 2014 urteen artean. ETAK 849 pertsona hil ditu, guztiaren % 91,58; 68 pertsona hil dituzte terrorismoaren kontra-talde terroristek, % 7,33; gainerako 10 hildakoak, % 1,7, eragin zituzten ekintzen egilea ez da ezaguna.

Argitu gabeko hilketak-kopurua ez da erabat zehatza; zigorra ezarri ondoren amnistia emandako auzien eta preskribatutako auzien gaineko datuak falta dira.


1. ETA eta talde atxikiak

Txostena egiteko erabilitako dokumentazioaren arabera, 849 dira ETAK eta talde atxikiak egindako hilketak (1. eranskina). 821 kasu (% 95,79) jaso du lege-ebazpena. Horietako 548 epaia emandako hilketak dira (% 64,55); 170 (% 20,02) largetsi egin dira; 65 (% 7,66) amnistiatu egin zituzten; 27 (% 3,18) artxibatu egin ziren; eta 7 (% 0,82) deseginda egin dira. 18 (% 2,12) berriz irekitzea erabaki da eta Frantziako justiziak 3 (% 0,35) auzi izapidetu ditu. Ez dugu ezagutzen 11 (% 1,30) hilketaren auzibide-egoera.

Biktima guztietatik 833k (% 98,11) jaso dute Barne Ministerioaren kalte-ordaina. Gainerako 16 horiek kalte-ordaina ez jasotzea eskaera egin ez izanaren, ez baita ofizioz ematen, aldeak eskatuta baizik, edota eskaera epe kanpo egin izanaren ondorio izan daiteke. Ofizioz kondekorazioak baizik ez dira ematen, 2011tik aurrera (ikus 29/2011 Legearen 53.1 artikulua).

ETA-K HILDAKOAK, AUZIBIDE EGOERAREN ARABERA

EPAIA EMANDA	548	% 64,55
LARGETSITA	170	% 20,02
AMNISTIA EMANDA	65	% 7,66
ARTXIBATUTA	27	% 3,18
DESEGINDA	7	% 0,82
BERRIZ IREKITA	18	% 2,12
DATURIK EZ	11	% 1,30
AUZIBIDEA FRANTZIAN	3	% 0,35
OROTARA:	849	




ARGITU GABEKO ETA-REN HILKETAK, GUZTIRA (largetsitakoak eta artxibatutakoak)	197	%23,20
---	------------	---------------

2. Batallón Vasco Español (BVE), talde sateliteak: Triple A (Alianza Apostólica Anticomunista), ATE (Antiterrorismo ETA), Acción Nacional Española (ANE) eta Grupos Armados Españoles (GAE), eta kontroletik kanpokoak

ETA ez diren beste erakunde batzuen atentatuetan eragindako hilketei buruzko auzibide-egoeraren gaineko datu ofizial eza esanguratsua da. Aurkitu ditugun erreferentzia bakarrak dira Eusko Legebiltzarraren eskariz (2007ko urriaren 5eko osoko bilkura) Eusko Jaurlaritzaren Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak idatzitako Kontroletik kanpoko talde eskuin muturrekoen eta GALen terrorismoaren 1975etik aurrerako biktimeen txostena eta aipatutako legebiltzar-ebazpen horren beraren harira Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubideen Zuzendaritzak idatzitako Asmo Politikoko Indarkeriaren ondoriozko Giza Eskubideen Urraketen Biktimeen txostena. Gure zerrendak osatzeko, iturri bibliografikoetara eta prentsara jo dugu.

ETA-REN AURKAKO TERRORISMOAK HILDAKOAK

BATALLÓN VASCO ESPAÑOL ETA TALDE SATELITEAK ETA KONTOLETIK KANPOKO TALDEAK	41	% 60,86
GRUPOS ANTITERRORISTAS DE LIBERACIÓN (GAL)	27	% 39,13
GUZTIRA	68	



Batallón Vasco Español (BVE) espainiar erakunde parapoliziala orduko gobernuko presidente Luis Carrero Blanco 1973ko abenduaren 20an ETAk hil eta gero sortu zen. Kide gehienak soldatapeko mertzenarioak, poliziak, zerbitzu sekretuetako kideak eta ultraeskuindarrak ziren eta Frantziaren hegoaldean eta Euskadin jardun ziren 1975eko ekainetik 1982ko urtarrilera bitartean, ETAREN terrorismoari aurka egiteko asmoz. Sigla gehiago ere erabili zituzten beren atentatuen egiletza bere gain hartzean: Triple A, ATE, ANE eta GAE. Talde horietan aritu ziren mertzenarioetako batzuk Grupos Antiterroristas de Liberación (GAL) erakunde terroristaren kide egin ziren. Kategoria honetan sartu dugu eskuin muturreko kontroletik kanpoko ezezagunek eragindako hilketa bat.


Aurre-oharretan aipatu dugun bezala, txostenak erakunde terroristek eragindako hildakoak jaso ditu. Hala, kategoria honetan, segurtasun-indarren kideez osatutako taldeen edota Estatuaren aparatuek bultzatutako erakunde terroristen hilketak sartu ditugu. Ez dira txostenean sartu polizia-gehiegikeriaren biktimak.

Guztira, 41 hildako eragin zituzten BVEk, talde sateliteek eta kontroletik kanpokoek, gure datuen arabera (ikus 2. eranskina). 7 epai (% 17,07) eta 10 largespen (% 24,39) eman direla baizik ezin izan dugu egiaztatu. Gainerako 24 kasuetan (% 58,54) ezezaguna zaigu auzibide-egoera. Kontuan hartu behar da hilketa horietako asko Frantzian gauzatu zirela. Ondorioz, oso zaila da auzibidearen jarraipena egitea, ezpada prentsan argitaratutakoagatik.

Lehen esan dugun bezala, akatsen bat dela medio, BVEren biktimeetako bi, Martín Merquelanz Sarriegui eta Juan José Lopategui Carrasco, Barne Ministerioaren ETAREN biktimeen zerrendan daude.

BVE-K, TALDE SATELITEEK ETA KONTROLETIK KANPOKOEK HILDAKOAK, AUZIBIDE EGOERAREN ARABERA

EPAIA EMANDA	7	% 17,07
LARGETSITA	10	% 24,39
DATURIK EZ	24	% 58,54
OROTARA:	41	




ARGITU GABEKO BVE-REN, TALDE SATELITEEN ETA KONTROLETIK KANPOKOEN HILKETAK, GUZTIRA (largetsita-koak eta artxibatutakoak)	10	%24,39
--	-----------	---------------

3. Grupos Antiterroristas de Liberación (GAL)

GAL, nagusiki, Ipar Euskal Herrian jardun zen 1983 eta 1986 artean, 27 hilketa egiteko. Horietako hamabi epaitu dira, eta epaia emanda daude (% 44,44); 9 artxibatu dira (% 33,33); sumario 1 behin-behinean largetsi dute (% 3,70); eta gainerako 5 kasuak (% 18,51) Frantziako auzibideak dira, eta ez dakigu zein auzibide-egoeratan dauden (3. eranskina).

GAL-EK HILDAKOAK, AUZIBIDE EGOERAREN ARABERA

EPAIA EMANDA	12	% 44,44
LARGETSITA	1	% 3,70
ARTXIBATUTA	9	% 33,33
AUZIBIDEA FRANTZIAN	5	% 18,52
OROTARA:	27	



ARGITU GABEKO GAL-EN HILKETAK, GUZTIRA (largetsitakoak eta artxibatutakoak)	10	37,03%
--	-----------	---------------

4. Egile ezezagunak eta bestelakoak

Kategoria honetan 10 kasu jaso ditugu. Horietako zortziren egiletza ez zuen bere gain hartu inongo erakunde terroristak, edo egiletza bere gain hartu zuten erakundeak ezezagunak ziren ordura arte, eta ez zuten hilketa gehiagorik bere gain hartu. Hori dela eta, uste da talde horiek egiaz ez zirela sekula existitu. Kasuetako baten egiletza euskal ingurunearekin lotura zuzenik gabeko talde batek (DRIL) hartu zuen bere gain. Azkena, Guerrilleros de Cristo Rey taldeak gauzatu zuen. Horietako bi kasu (% 20,00) behin-behinean largetsi dira; beste 2 (% 20,00) amnistia emanda daude; 1 (% 10,00) artxibatu egin zen; eta gainerako 5en daturik ez dugu lortu.

EGILE EZEZAGUNEK ETA BESTELAKOEN HILDAKOAK AUZIBIDE EGOERA

LARGETSITA	2	%20,00
AMNISTIA EMANDA	2	%20,00
ARTXIBATUTA	1	% 10,00
DATURIK EZ	5	% 50,00
OROTARA:	10	



ARGITU GABEKO EGILE EZEZAGUNEN HILKETAK, GUZTIRA (largetsitakoak eta artxibatutakoak)	3	%30
--	----------	------------

**ERAKUNDE TERRORISTEK HILDAKOAK,
AUZIBIDE EGOERAREN ARABERA**


ETA		
EPAIA EMANDA	548	% 64,55
LARGETSITA	170	% 20,02
AMNISTIA EMANDA	65	% 7,66
ARTXIBATUTA	27	% 3,18
DESEGINDA	7	% 0,82
BERRIZ IREKITA	18	% 2,12
DATURIK EZ	11	% 1,30
AUZIBIDEA FRANTZIAN	3	% 0,35
GUZTIRA	849	
ARGITU GABE (largetsitakoak eta artxibatutakoak)	197	% 23,20

BVE, TALDE SATELITEAK ETA KONTROLETIK KANPOKOAK		
EPAIA EMANDA	7	% 17,07
LARGETSITA	10	% 24,39
DATURIK EZ	24	% 58,54
GUZTIRA	41	
ARGITU GABE (largetsitakoak eta artxibatutakoak)	10	% 24,39


GAL		
EPAIA EMANDA	12	% 44,44
LARGETSITA	1	% 3,70
ARTXIBATUTA	9	% 33,33
AUZIBIDEA FRANTZIAN	5	% 18,52
GUZTIRA	27	
ARGITU GABE (largetsitakoak eta artxibatutakoak)	10	% 37,03

EGILE EZEZAGUNAK ETA BESTELAKOAK		
LARGETSITA	2	%20,00
AMNISTIA EMANDA	2	%20,00
ARTXIBATUTA	1	% 10,00
DATURIK EZ	5	% 50,00
GUZTIRA	10	
ARGITU GABE (largetsitakoak eta artxibatutakoak)	3	% 30,00

ATENTATUAK, GUZTIRA



ARGITU GABEKO ATENTATUAK



V. Bibliografia.

1. Dokumentuak.

a) Auzitegi Nazionaleko Fiskaltzaren txostena, 2011koa, Terrorismoaren Biktimen Fundazioaren eskariz eginna, ETAk 1960 eta 2010 urteen artean hildako 349 pertsonen zerrenda jasotzen duena. Dokumentu hori eguneratu egin zuten eta 2014ko apirilean jaso genuen bertsio eguneratua.

b) 2013ko abenduaren 23ko data duen eta Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Bulegoak egindako «ETA erakunde terroristak egindako 349 atentaturen terrorismoaren biktimek eskatutako informazioari buruzko behin betiko balantzea». Dokumentuaren hazia 2010eko ekainaren 8ko bilera batean erein zuten honako hauek: Auzitegi Nazionalaren orduko presidente Ángel Juanes eta Terrorismoaren Biktimen Fundazioaren orduko presidente Maite Pagazaurtundúa, Miguel Ángel Blanco Fundazioaren presidente Cristina Cuesta eta Dignidad y Justicia elkartearen ordezkari Carmen Ladrón de Guevara. Bileraren aktaren arabera, prozedura atentatu-kopuru handi bati buruzkoak ziren, beren esanetan, «ebatzi gabe» zeudenak.

c) Barne Ministerioaren mendeko Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza Nagusiak egindako «ETA erakunde terroristak eta inguruko erradikalek hildakoak 1968tik 2009ra» zerrenda.

d) Barne Ministerioaren mendeko Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza Nagusiak egindako «Terrorismoaren biktimei emandako laguntzari buruzko txostena», Europar Batasunaren presidentetza Espainiari zegokiola-eta egindakoa (2010eko lehen seihilekoa).

e) Barne Ministerioaren mendeko Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza Nagusiak egindako «Zigor-epaiak aitortutako eta kalte-ordainik jaso gabeko biktimak aurkitzeko programa 2000-2007».

f) Eusko Jaurlaritzaren Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak idatzitako «GALen, eskuin muturreko taldeen eta kontrolatik kanpokoan jardunbide terroristaren biktimen txostena», 2007ko urriaren 5ean, Gasteizko Legebiltzarraren osoko bilkurak erabakita.

g) Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubideen Zuzendaritzak egindako «Xede politikoko indarkeriaren ondoriozko giza eskubideen urraketen biktimen txostena», aurreko paragrafoan aipatutako Legebiltzarraren erabaki berdina betez.

h) Terrorismoaren Biktimen Fundazioaren Inpunitatearen Behatokiak egindako azterlana, lehen aipatutako Auzitegi Nazionalaren Fiskaltzaren txostenari buruz.

2. Lege-xedapenak.

a) Eusko Legebiltzarrak onartutako ekainaren 19ko 4/2008 Legea, Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa Egitekoa (EHAA, 2008ko uztailak 1).

b) Eusko Legebiltzarrak onartutako 290/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, terrorismoaren biktimei laguntza integrala emateko sistema garatzen duena (EHAA, 2010eko abenduak 15).

c) 32/1999 Legea, urriaren 8koa, Terrorismoaren Biktimekiko Elkartasunekoa (EAO, 1999ko urriak 9).

d) 1912/1999 Errege Dekretua, abenduaren 17koa, 32/1999 Legea egikaritzeko erregelamendua onartzen duena.

e) Gorte Nagusiek onartutako irailaren 22ko 29/2011 Legea, Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Babes Integrala Ematekoa (EAO, 2011ko irailak 23), eta garapen-erregelamendua. 671/2013 Errege Dekretua, irailaren 6koa.

3. Egile-lanak.

a) *Vidas Rotas. Historia de los hombres, mujeres y niños víctimas de ETA*. Rogelio Alonso, Florencio Domínguez eta Marcos García Rey. Madril. Espasa Calpe.

b) *Víctimas del Terrorismo 1968-2004*. María Belén Pulgar Gutiérrez. Terrorismoaren Biktimen Fundazioa. Madril. Dykinson, 2004. Argitaratu zenetik igarotako denbora gorabehera, lan interesgarria da egilea Barne Ministerioko Herritarren Arretarako eta Biktimen Laguntzarako Azpizuzendaritza Nagusiko Gizarte Lanaren Koordinatzailea izan zelako 1998tik aurrera, eta aipatutako urteen artean zeuden datu ofizialak erabili zituelako.

c) *La derrota de ETA*. De la primera a la última víctima. José María Calleja eta Ignacio Sánchez-Cuenca. Adhara Publicaciones.

d) *Las víctimas del terrorismo en España*. José Manuel Rodríguez Uribes. Editorial Dykinson. Madril, 2013.

e) *Diccionario Espasa Terrorismo*. José María Benegas. España Calpe. Madril, 2004.

4. Prentsa.

a) El País.

b) ABC.

5. Beste batzuk.

a) Webguneak: Barne Ministerioa, Terrorismoaren Biktimen Fundazioa, Terrorismoaren Biktimen Elkarte, COVITE eta Buesa Fundazioa.